

FRANTSESA L2

DEPARTAMENTUA	FRANTSESEKO MINTEGIA
ZERTARAKO	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Gizartean eta teknologia berrietan ingelesaren pisua ukaezina den arren, Bidasoa mugan kokaturiko eskualdea dela ezin dugu bistaz galdu, non empresa askotan eta ostalaritzan hainbat lanpostuetarako frantsesa bereziki eskatzen da. Ingelesaz gain, frantsesa jakingo duen ikasleari lan munduan aukera eta ate gehiago irekiko zaizkio. Gaur egun, gure gizarteak ingelesa jakiteaz gain, beste atzerriko hizkuntz batean trebetasunak izatea eskatzen du. Horrexegatik, Talaia Institutuak ingelesa ikasten duen ikasleari, frantsesa ere ikasteko aukera zabaltzen dio. ➤ Frantsesa Bigarren Atzerriar Hizkuntzan, ikasleek komunikatzen ikas dezatela egoera informaletan formaletan baino gehiago bilatzen dugu, bereziki testuinguru hauetan: bidaietan, beste europar ikasleekiko elkartrukeetan, eta bizitzaren komunikazio egoeretan. Honetarako, frantseseko ikasleei 3 DBHko L2ko ikasleei ere Bresteko elkartrukean parte hartzeko aukera ematen zaie.
ZER IKASIKO DUZU	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Oinarrizko eta ertaineko ulermenezko testuak irakurri eta ulertu. ➤ Gramatika eta hiztegia benetazko egoeretara lotuak bereganatu. ➤ Errealitateko entzumenezko dialogoak eta egoerak ulertu. ➤ Oinarrizko eta ertaineko ahozko dialogoetan eta bizitzako egoeretan frantsesez moldatu, bereziki bidaiatzeko eta jendearekin komunikatzeko.
METODOLOGIA	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Helburu nagusia frantsesa ikastea da baina bigarren atzerriko hizkuntzaren kasuan, alde praktiko eta ludikoari pisu handiagoa emanez. ➤ Metodologia aldetik, gelako lanari eta irakasgaiarekiko interesari garrantzi handiagoa emango zaie idatzizko probei baino. Ahozko eta idatzizko ulermenek eta adierazpenek lehentasuna dute. ➤ Ahozkotasuna-trebatze prozesu honetan, frantsesa hizkuntza laguntzailearen laguntza oso estimagarria da. Berarekin dialogoak, eguneroko egoerak landuko dituzte ikasleek. Baldin badago ikaslerik Delfeko azterketetara aurkeztu nahi duena, hori prestatzeko ere potsibilitatea emango zaio.

EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none">➤ Gelan eguneroko lana.➤ Ahoz frantsesez parte hartzea, bai irakaslearekin bai irakurlearekin daudenean.➤ Binakako eta taldeko lana.➤ Idatzizko Probak egingo diren arren, goiko hiru puntuek pisu handiagoa izango dute ebaluazioan.➤ Adierazle nagusia ahoz parte hartzea beraien artean eta gelan besteen aurrean izango da.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none">➤ Helburu hauek lortzeko, komenigarria da 1 DBHn frantsesa L2rekin hasten den ikasleak hizkuntza hau ikasten jarraitzea DBH osoan zehar. Dena den, motibazioa galtzen bada edo arrazoi pedagogikoak direla medio, urte batetik hurrengora hautagaiz aldatzea posiblea izango da.➤ L2koek ere parte hartu ahal izango dute egiten den Frantziako elkartrukean.